

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoa 2016ko ekainaren 13an aurkeztuko du

Artea ikasbide

Babeslea:



Artea ikasbide erakusketa beste behin Guggenheim Bilbao Museoan

- Datak: ekainak 14–irailak 18
 - Lekua: Guggenheim Bilbao Museoko hezkuntza gunea
 - Babeslea: BBK
-
- Sei eta hamabi urte bitarteko 119 ikaslek, EAEko eskoletakoak, Museoko hezkuntza gunean erakusgai dauden artelan berezi hauek sortu zituzten.
 - *Artea ikasbide* egitarauak eskola curriculumeko gaien ikasketa errazten du jolasaren eta artegintzaren bidez.
 - Museoko entzuteko gidek, bigarren urtez, egitarauaren informazio orokorra eta *Artea ikasbide* erakusketako artelan batzuen azalpenak eskainiko ditu, beste erakusketetan egiten den bezala.

“Proiektu honen parte izango ginela jakin nuenean emozioa sentitu nuen, baina beldur nintzen ere bai; eta urduri nengoen, artista bat ezagutuko nuen eta. Museora joan ginenean metalezko armiarma bat eta lorezko txakur bat ikusi genituen, baita Alex Katzen margolanak eta pelikula ere; pelikula bikaina izan zen”. Horrela azaldu zuen Santa María de Vitoria eskola publikoko haur batek *Artea ikasbide* egitarauak eragindako zirrara; aurtengo egitarauaren hemeretzigarren edizioa da.

Erakusketa honek BBK du babesle eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren lankidetzaz antolatuta da. Ekainaren 14tik irailaren 18ra izango da Museoko hezkuntza gunean; duela bi urte ireki zen gunea, askotariko hezkuntza-jarduerak eta erakusketa didaktikoak hartzeko.

Elsie Ansareo, Naia del Castillo, Maider López, Manu Muniategiandikoetxea, Jorge Rubio eta Ainhoa Ortells artistek, Guggenheim Bilbao Museoko hezitzaileekin eta EAEko sei ikastetxetako irakaslerekin elkarlanean, taxutu dituzten artelan hauek sortzeko bidea eman dituzten tailerrak.

“Planetak, haien mugimenduak eta egunean, gauean eta urtarotan duten eragina landu ditugu.. [...] Planetak margotu ondoren, pintatutako kartoiekin bildu ginen eta errotazio eta translazio mugimenduak antzeztu genituen, planetak bagina moduan. Lurra hezuramaitzen zuen haurra Eguzkira gehiegi hurbiltzen bazen, ikaskideek deiadar egiten zioten: ‘Kiskaliko zara!’. Egun batean ikaskide batek oso serio esan zion beste bati, ardura hartzen ari ez zen bati: ‘Saturno bazara,

Saturno zara; ezin zara denbora guztian planetaz aldatzen ibili". Pasadizo horretaz baliatuz azaldu zuen Maider López artistak Irungo Leka Enea-Anaka ikastetxeko haurren lana.

Asmamenez betetako sei arte proiektu

Artea ikasbide erakusketako 119 "artistak" Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako sei ikastetxetakoak dira.

Gasteizko Padre Orbiso LHlko 5. mailako ikasleek ikastetxeari izena ematen dion pertsonaia historikoaren, aita Orbisoren, inguruko informazioa bilatu zuten. Eskolako sarreran dagoen apaizaren eskultura marraztu zuten eta marrazki horiek maskara bihurtu zituzten; ondoren kontakizun bat asmatu zuten aita Orbiso biziartzeko. Ipuin hori antzetzeko, txotxongiloak egin zituzten, matxe papera eta panpina zaharrak erabiliz, eta, gela itxurako agertokia egiteko, Museoan ikusitako Louise Bourgeois-en *Gelak* izan zituzten oinarri.

Gasteizko Santa María de Vitoria LHlko 2. mailako ikasleek denboraren inguruan hausnartu zuten: zer eginkizun duen, nola neur dezakegun eta zer aldaketa eragiten dituen lekuetan, objektuetan eta gure gorputzean. Erabilitako arkatzen eta borragomen, ihartutako eta uzurtutako mandarina azalen, urak utzitako arrastoen eta abarren argazkiak atera zituzten erabili eta botatzeko argazki-kamerez baliatuz eta kasu bakoitzean zer gertatu ote zen azaltzeko lerro batzuk idatzi zituzten. Amaitzeko, *performance* dibertigarria egin zuten: burututako ekintza baten aztarna jasotzeko, oihal baten gainean oinatzak utzi zituzten, oinak margoz busti ondoren.

Irungo Leka Enea-Anaka LHlko 2. mailako hurrek eguzki-sistema aztertu zuten, zeruari begiratuz eta zerua irudikatuz. Izar-konstelazioak, neguko zeruko euri eta haizea, udaberriko zeruko hodei eta koloreak eta beste asko margotu zituzten banaka; ondoren, guztien marrazkiak batu eta talde osoaren zeru handi bat osatu zuten, taldekako ikuspegia zuena. Horrez gain, Eguzkia, Lurra eta Ilargia irudikatu zituzten kartoi mehetan eta horiek buru gainean eramanda Lurraren eta Ilargiaren translazio eta errotazio mugimenduak antzetzeko zituzten. Proiektua biribiltzeko, eguzki-sistemako planeta guztiak irudikatu eta haien mugimenduak antzetzeko zituzten; ekintza hori bideoz grabatu zuten.

Bilboko Uribarri ikastetxeko 3. mailako ikasleek euren burua hobe ezagutzeko aukera izan zuten, bai eta hitzez eta artegintzaz baliatuz sentimenduak adierazteko ere. Lehen planoko banakako argazkiak egin zituzten eta proiektatu egin zituzten eskala handitzeko. Autorretratu hori osatzeko, edukiz betetzeko, euren burua deskribatzeko hitzak idatzi zituzten eta euren burua hobe definitzen zituzten kolorez margotu zituzten erretratuak.

Sestaoko Vista Alegre ikastetxeko 3., 4., 5. eta 6. mailako hurrek telebista-kate bat sortu zuten: Vista Alegre Telebista izena jarri zioten. Telebista identifikatzeko logo bat diseinatu zuten eta mugimenduan dauden irudiek dituzten ezaugarriak aztertu zituzten eta horiek deskribatzen ikasi zuten; horretarako filmen, telesailen, dokumentalen eta fikziozko lanen gaineko hausnarketa egin zuten. Bideo klip bat, elkarrizketa batzuk eta fikziozko dokumental bat grabatu zuten ondoren.

Ondo pasatzeaz eta ikus-entzunezkoei buruz ikasteaz gain, talde-lanaren eta ahaleginaren garrantziaz ohartu ziren.

Portugaleteko Virgen de la Guía ikastetxeko 3., 4., 5. eta 6. mailako ikasleek pertsonen arteko antzekotasunez eta aldeez jabetu ziren eta horietaz gozatzen ikasi zuten. Horretarako giza gorputza aztertu zuten eta ondorioztatu zuten gizaki guztiok hezurdura dugula eta horrek berdin egiten gaituela; hala ere, bakoitzak bizimodu jakin bat daramagunez, gure bizitzak “kolore”, “ñabardura” jakin bat du. Hausnarketa horretatik abiatuta margotu zuten tamaina errealeko eskeleto-modelo bat, hezur batzuen izenak eta horien eginkizuna ikasi zituzten. Azkenean, modeloari Eskeleto izena eman zioten eta pertsonaia bihurtu zuten: kolore sinbolikoz margotu, hainbat arropaz jantzi eta askotariko nortasunak esleitu zizkioten.

“Esperientzia oso ona izan da. Ume gehienak oso motibatuta egon dira eta ideia eta lan onak sortu dituzte. Gainera denek sentitu dute gai direla gauza politak egiteko eta honek asko laguntzen du autoestimua sendotzen (gure eskolan autoestimua oso baxua da orokorrean). Ainhoaren papera oso garrantzitsua izan da eta konfiantza handia jarri dute berarengan. Proiektua oso interesgarria da”. Horrela baloratu zuten Portugaleteko Virgen de la Guía LHlko irakasleek *Artea ikasbide* proiektua.

New York–Bilbo elkartrukea

Artea ikasbide egitarauko parte-hartzaileek —ikasle, artista eta irakasleek— aukera izan dute 1999tik kultur elkartruke batean esku hartzeko: EAEko Lehen Hezkuntzako Ikastetxe bat eta New Yorkeko ikastetxe batek arte-proiektuak partekatzen dituzte. Elkartruke artistiko bat baino gehiago da, ikasleek interesen, gustuen, jolasen eta inguruko errealitateko beste edozeren gainean hitz egiten baitute. Deialdi honetan, Bilboko Uribarri LHlko eta New Yorkeko Brooklyn auzoko Public School 9 Teunis G. Bergen ikastetxeetako parte-hartzaileek e-postak elkartrukatu zituzten sei astez: proiektu artistikoei buruzko informazioa eta argazkiak zeuzkatenak eta beren inguruneen berezitasun eta antzekotasunak deskribatzen zituztenak. Horrez gain, autorretratu bereziak egiteko modu errazak partekatu zituzten eta bi hirietako Guggenheim Museok alderatu zituzten.

***Artea ikabideren* hemeretzi urte**

1998tik, 2.758 ikaslek, 28 artistak, Lehen Mailako Hezkuntzako hiru hizkuntza-ereduen 195 irakaslek eta Euskal Autonomia Erkidego osoko 133 ikastetxek saiamenez lagundu diete Guggenheim Bilbao Museoko hezitzaileei *Artea ikasbide* programa gauzatzeko.

la hogei urte igaro dira egitaraua Guggenheim Bilbao Museoan abian jarri zenetik, eta, oraindik ere, argi geratzen da arteak eskola curriculumara sendotzen laguntzen duela. Heziketa-programa hau New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museoan ernatu zen. 1970. urtean, Natalie K. Lieberman mezenasak jarri zuen martxan, hiriko lehen mailako ikastetxe publikoetan arte-irakaskuntza kendu baitzuten.

Programa honen helburua da eskola-curriculum indartzea edozein ikasgairi heltzen dioten arte-jardueren bidez, tartean, Ingurunearen Ezaguera, Matematika eta Hizkuntza eta Literatura. Era berean, ikasleei irakasten zaie munduari era sortzaile eta pertsonal batean begiratzen, baita hainbat gaitasun lantzen ere, adibidez, idazkuntza eta ahozko adierazpena; gainera, balioak eskuratzen dituzte (talde-lana, beste kulturekiko bizikidetzak edo ingurumenaren errespetua).

Azaleko irudia

Bilboko Uribarri ikastetxeko 3. mailako ikasleek egindako lana.

Argibideetarako:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio Saila

Tel.: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.es

www.guggenheim-bilbao.es

Guggenheim Bilbao Museolari buruzko informazio guztia www.guggenheim-bilbao.es webgunean eskuragarri (prentsa eremua).

Prensa irudiak:
Artea Ikasbide
 Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza. Oso garrantzitsua da irudien koloreen profila ez aldatzea. Mesedez, erabil ezazu beti jatorrizko profilen kolorea, eraldatu gabe.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoz bidez, media@guggenheim-bilbao.es

Leka Enea-Anaka LHI, Irun



Vista Alegre LHI, Sestao



Padre Obispo LHI, Gasteiz



Santa María LHI, Gasteiz



Uribarri LHI, Bilbo



Virgen de la Guía LHI, Portugalete

